# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea
EGUNA / FECHA: 20/11/2013
HASIERA / INICIO: 20:30
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATESA/ALCALDESA
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)
Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera


Axpe auzoa, 1 48.350 BUSTURIA (Bizkaia) Tel. 94 687 00 50 Faxa. 94 687 00 63 IFK: P-4802500A udala.busturia@bizkaia.org

| | |
|---|---|
| Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.<br>Alkate anderearen aginduz, zinegotzien artean behar adina denboraz banatutako gai ordenaren arabera ekin zitzaion bilerari, eta honako erabakiak hartu ziren: | En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, Dº Víctor-Martín Amparan Álvarez.<br>De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos: |
| **1.- AURREKO SAIOKO AKTA.-** | **1.º.- ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 2013ko azaroaren 6ko saioko akta. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 6 de noviembre de 2013. |
| **2.- N. C.REN IDAZKIA.-** | **2.º.- ESCRITO DE N. C.-** |
| Kontuan hartuta N. C. P.k beste zerbitzu batzuk izateko edo erabiltzaileei tarifak gutxitzeko auto-taxi ibilgailuan eserleku gehiago eskatzeko aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:<br>1.- Udalaren dinamizazio sozioekonomikoaren ikuspuntutik, proposamena positiboki baloratzea.<br>2.- Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio Sailari eskaera onar daitekeen inguruko txostena eskatzea. | Visto el escrito presentado por N. C. P. solicitando la concesión de más plazas en el vehículo auto-taxi para poder optar a otros servicios o reducir las tarifas a los usuarios, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:<br>1.- Valorar positivamente la propuesta desde el punto de vista de dinamización socio-economía municipal.<br>2.- Solicitar informe al Departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia sobre si es posible acceder a la solicitud. |
| **3.- B. K. T.REN IDAZKIA.-** | **3.º.- ESCRITO DE B. K. T.-** |
| Jarraian, B. K. T.k aurkeztutako idazkia irakurri zen, ondoko eskaerak jasotzen zituena:<br>- Altamirako futbito-zelaia erabiltzeko baimena, azarotik maiatzerako astearte, asteazken eta ostegunetan 17:00etatik 19:00etara.<br>- Itsasadarreko aldagelak konpontzea.<br>- Belarra mozteko makinaren konponketen inguruko azalpena.<br>- Zelaiaren kanpoaldeko belarra mozteko aurrekontua onartzea.<br>Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen lehenengo eskaera onartzea eta gainerako hirurak mahai gainean uztea. | A continuación se dio lectura al escrito presentado por el B. K. T., en el que se formulan las siguientes peticiones:<br>- Autorización para utilizar la pista de futbito de Altamira, los martes, miércoles y jueves, de noviembre a mayo, en horario de 17:00 a 19:00 horas.<br>- Reparación de los vestuarios de Itsasadar.<br>- Aclaración sobre las reparaciones del cortacésped.<br>- Aceptación del presupuesto del corte de la hierba del exterior del campo.<br>La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la primera de las peticiones y dejar sobre la mesa las tres restantes. |
| **4.- R. A. O.REN IDAZKIA.-** | **4.º.- ESCRITO DE R. A. O..-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez gaitzetsi zuen San Kristobal 39.eko urbanizazioan kale-argia jartzeko R. A. O.ren idazki-eskaera, urbanizazio pribatu bateko eremua | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó desestimar la petición de R. A. O. para colocar una farola en la urbanización de San Cristóbal 39, por tratarse de una zona que forma |

delako.

parte de una urbanización privada.

**5.- A. B. O.REN IDAZKIA.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari eta 13/13 txostenaren hirigintza-baimena ematearen ondoriozko tasari dagozkien ordainketa atzeratzeko A. B. O.ren eskaera, ordainketa egiteko formula ondokoa izango delarik:

- 10.397,40 € borondatezko epearen barruan.
- 7.000€ 2014ko apirilaren 1ean.
- 5.000€ 2014ko uztailaren 15ean.
- 5.000€ 2014ko azaroaren 15ean.

**5.º.- ESCRITO DE A. B. O.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el aplazamiento de pago solicitado por A. B. O., en relación al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras y tasa por concesión de licencia urbanística del expediente n.º 13/13, cuya fórmula de pago sería la siguiente:

- 10.397,40€ dentro del periodo voluntario.
- 7.000€ el 1 de abril de 2014.
- 5.000€ el 15 de julio de 2014.
- 5.000€ el 15 de noviembre de 2014.

**6.- BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOAREN IDAZKIA.-**

Bizkaiko Mendizale Federazioak "Txakolinaren itzalpetan pasieran" PR BI160 ibilbide laburraren mantentze-lanak aztertzeko berarekin harremanetan jartzeko Udal honi aurkezturiko eskaera-idazkia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen.

Alkate andreak jakinarazi zuen orain arte mantentze-lan horiek egin dituen "Urremendi" landa-garapenerako elkarteak egiteari utzi diola. Horrez gain, jakinarazi zuen Muxikako Udalak eskatu zuela, Eskualdeko Enplegu Planaren barruan, partida bat erreserbatzea horretarako eta Eskualdeko Foroak, udalei proposamenen berri eman behar zienak, planaren barruan sartzea baztertu zuela, baita Udal honen bi proposamenak ere. Horregatik guztiagatik, salatu nahi zuela eskualdeko erakundeek udalerri txikiak, Urremendi eta Behargintza, besteak beste, baztertzen dituztela, hauek mantentze-lanetarako ekarpen ekonomikoak egiten badituzte ere.

**6.º.- ESCRITO DE LA FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE MONTAÑA.-**

Visto el escrito presentado por la Federación Vizcaína de Montaña solicitando que este Ayuntamiento se ponga en contacto con ella para estudiar el mantenimiento del sendero de pequeño recorrido PR BI160 "Caminando a la sombra del txakoli", la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a su petición.

La señora alcaldesa informó de que anteriormente estos trabajos de mantenimiento los hacía la Asociación de desarrollo rural "Urremendi", que ha dejado de hacerlo. También dijo que se había solicitado, por parte del Ayuntamiento de Muxika, que dentro del Plan de Empleo Comarcal, se reservase una partida con este fin y que el Foro Comarcal, que tenía que informar de las propuestas de los ayuntamientos, rechazó su inclusión, al igual que los dos proyectos presentados por este Ayuntamiento. Por todo ello, quería denunciar que los municipios pequeños se están viendo marginados en las instituciones comarcales, como Urremendi y Behargintza, a las cuales, sin embargo, hacen aportaciones económicas para su mantenimiento.

**7.- M. B. I. O.REN IDAZKIA.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez gaitzetsi zuen BI-7604-BZ ibilgailua Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergatik salbuesteko M. B. I. O.k eginiko eskaera, lehen matrikulaziotik eta fabrikatu zenetik igaro beharreko 25 urteak ez betetzeagatik, aurkezturiko dokumentazioan ageri den bezala ibilgailua 1994an fabrikatu eta 1996an matrikulatu baitzen.

**7.º.- ESCRITO DE M. B. I. O.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la petición realizada por M. B. I. O. para que se declare exento del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo BI-7604-BZ, por considerar que no tiene la antigüedad requerida de 25 años desde su primera matrículación y fabricación, ya que, según consta en la propia documentación entregada, el vehículo fue fabricado en 1994 y matriculado en 1996.

**8.- HIRIGINTZA-BAIMENAK.-**

**8.º.- LICENCIAS URBANÍSTICAS.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten tekniko eta juridikoak ikusita, aho batez onartu zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

1.- G. G. E. (13/13 Txost.), Altamira auzoko 60.eko (Trebol eraikina) teilatuan xafla jartzeko (egun dagoen asfaltozko geruzaren ordez), 6.000 €ko aurrekontuarekin.

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes técnicos y jurídicos emitidos, por unanimidad, acordó conceder las siguientes licencias que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

1.º.- G. G. E. (Expte. 13/13), para colocación de chapa en el tejado (en sustitución de la tela asfáltica colocada actualmente) en el barrio de Altamira, 60 (Edificio Trebol), con un presupuesto de 6.000 €.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Alkatea/La Alcaldesa,

Fdo: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez